

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	UR-INGURUNE NATURALETAN ISTRIPUAK PREBENITZEA	Iraupena	60
Kodea	MF1082_2:		
Lanbide-arloa	Kirol-jarduera fisikoak		
Lanbide-eremua	Prebentzioa eta sendatzea		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ur-ingurune naturaletako sorospena	Maila	2
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Uretako oinarrizko trebetasun eta abileziak (zeharkakoa)	Iraupena	40
	Uretan igeri egiteko teknika espezifikoak (zeharkakoa)		80
	Ur-ingurune naturaletan istripua izan dutenak erreskatatzean igeri egiteko teknikak eta kondizio fisikoak		30
	Ur-ingurune naturaletan istripua izan dutenak ateratzea eta lekualdatzea.		90
	Lehen laguntza. (Zeharkakoa)		40
	Ur-ingurune naturaletako sorospeneke lanekoak ez diren lanbide-jardunbideen modulua.		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1082_2 Ur-ingurune naturaletako istripuak edo larrialdi-egoerak prebenitzea.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Esku hartzeko testuingurua gainbegiratzeko eta aztertzeke teknika espezifikoak zehaztea eta aplikatzea, ur-ingurune naturaletako ohiko bainu-eremuen arrisku-faktoreak hautatzeko.

E11.1 Ur-ingurune naturaletako bainu publikoko eremuek izan behar dituzten ezaugarriak eta bete behar dituzten baldintzak deskribatzea.

E11.2 Bainu publikoko eremuetako istripuen eta biktimen estatistikak interpretatzea eta haien kausak aztertzea.

E11.3 Ur-ingurune naturaletako bainu publikoko eremuei buruzko estatuko, autonomia-erkidegoetako eta/edo tokiko araudiak identifikatzea, aztertzea eta testuinguru batean jartzea.

A2: Baliabide materialak identifikatzea eta zehaztea, faktore hauek kontuan hartuz: prebentzioa, istripua izan duena zaintzea, erreskatatzea eta hari lehen laguntza ematea, eta mantentzea.

E12.1 Informazio- eta prebentzio-euskarriak eta zaintza, erreskate eta lehen laguntzako materialak deskribatzea eta haien funtzioak azaltzea.

E12.2 Ingurumen-kondizioak eta arrisku-faktoreak interpretatzea, ur-ingurune naturaleko egoera adierazten duen bandera-kolorea behar bezala hautatzeko eta aukeratutako kolorearen arabera zer neurri hartu behar diren azaltzeko.

E12.3 Barneko eta kanpoko komunikazio-sistemak deskribatzea (irradi-transmisoreak, telefonoak, txilibituak eta abar), eta haien oinarrizko mantentze-lanak azaltzea.

E12.4 Lehen arretako sorospen-postua eta haren baliabide materialak deskribatzea.

E12.5 Kasu praktiko batean, salbamendu- eta sorospen-zerbitzuan erabiltzen diren baliabide material guztiak deskribatzea eta haien mantentze-lanak egitea.

A3: Prebentziozko, erreskateko eta ebakuazioko jarduera-protokoloak egitea eta/edo egokitzea, istripu-tipologiaren arabera.

E13.1 Jarduera prebentibo baterako zaintza-protokoloak deskribatzea.

E13.2 Erabiltzaileek jokabide okerrak eta/edo arriskutsuak dituztenean jarduteko protokoloak deskribatzea.

E13.3 Erreskate-protokoloak zehaztea, istripua izan duenaren egoeraren arabera (konorte-maila, lesio larriak edo oso larriak izateko aukera eta desgaitasunen bat izatea), hauei dagokienez:

- Uretara iristeko dagoen ibilbidea.
- Uretara sartzea.
- Istripua izan duenarengana hurbiltzea.
- Kontrola.
- Lekualdatzea.
- Ateratzea.

E13.4 Erreskate- eta sorospen-zerbitzua hobetzeko proposamenak argudiatzea.

- A4: Sorosleak zer neurri hartu behar dituen zehaztea, kontuan hartuz haren etengabeko identifikazioa, norberaren babesa eta laneko arriskuen prebentzioa.
- EI4.1 Soroslearen laneko arropa eta ekipamendua deskribatzea, eta azaltzea haiek ez erabiltzeak edo gaizki erabiltzeak zer ondorio ekar litzakeen erabiltzaileei eta laneko arriskuen prebentzioari dagokienez.
 - EI4.3 Ur-ingurune naturaleko lan-arriskuak eraginkortasunez prebenitzeko baliabide materialak eta pertsonalak zehaztea (babesteko kremak, eguzkitako betaurrekoak, txanoa, oinetakoak eta abar).
- A5: Hainbat erabiltzailei eta egoerari lotutako komunikazioko eta gaitasun sozialetako teknikak zehaztea eta aplikatzea, segurtasuna eta bizikidetzatza ona bermatuz.
- EI5.1 Komunikazio arrakastatsua lortzeko mezueta eta estrategietan erabil daitekeen komunikazio-mota identifikatzea.
 - EI5.2 Jarduera eta gertaerei lotutako komunikazio-prozesuaren etapen adibideak sailkatzea eta haien ezaugarriak zehaztea; informazio argia izan behar dute, eta mezua ulertzea zailtzen duten interferentziak identifikatu behar dira.
 - EI5.3 Kasu praktiko batean, segurtasuna eta bizikidetzatza bermatuko dituen informazioa transmititzeko baliabide grafikoak eta ikus-entzunezkoak hautatzea eta erabiltzea.
- A6: Erabiltzaileei prestakuntza ematea ur-ingurune naturalak kontserbatzeko eta errespetatzeko izan behar dituzten jokabideen inguruan.
- EI6.1 Ur-ingurune naturalei buruzko tokiko, autonomia-erkidegoetako eta estatuko arauak identifikatzea eta aztertzea, eta hautatzea erabiltzaileei jakinarazi behar zaizkienak eta haiei transmititzeko modu eraginkorrenak.
 - EI6.2 Erabiltzaileek ur-ingurune naturalean egiten dituzten jarduerak erabil litzaketen ingurumen-inpaktuak aztertzea.
 - EI6.3 Ur-ingurune naturalean susta litezkeen banakako eta taldeko ekintzak —ingurumen-kontserbazioan eta -errespetuan sentsibilizatzeakoak— deskribatzea.
 - EI6.5 Une oro jokabide eredugarria izatea ingurumena kontserbatzeko eta errespetatzeko ekintzetan.
- A7: Bainu publikoko eremuetako zaintza-teknikak eta -protokoloak zehaztea, ur-ingurune naturaleko ezaugarriak kontuan hartuz.
- EI7.1 Zaintza-lanetan egiten diren akats ohikoenak deskribatzea.
 - EI7.2 Zaintza-lanetan arreta mantentzeko teknikak zehaztea.
 - EI7.3 Ur-ingurune naturaleko erabiltzaileek izan litzaketen portaera edo jokabide arrakatsuek, debekatuak eta zaintza-lanean eragiten dutenak identifikatzea.

Edukiak

1. Uretako oinarriko sorospena.

- Oinarriak.
 - Historia.
 - Datu estatistiko interesgarriak.
 - Motak.
 - Helburuak.
 - Hobetzeko aukerak eta mugak.
- Soroslearen profil profesionala.
 - definizioa.
 - Jarrerak eta gaitasunak.
 - Soroslearen funtzioak.
- Ekipamendua eta lantokia.
 - Salbamendu-materiala.
 - Hurbiltzekoa.
 - Harremanetan jartzekoa.
 - Laguntzekoa.
 - Komunikaziokoa.
 - Uretatik ateratzekoa eta ebakutzekoa.
 - Salbamendu-postua.

2. Ur-ingurune naturaletako sorospenari buruzko legedi espezifiko eta harekin erlazionatutako legedia.

- Ur-ingurune naturaletako segurtasunarekin erlazionatutako legeak eta araudiak.
 - Uretako soroslearen laneko eskubideak eta betebeharrak.
 - Uretako soroslearen erantzukizun zibila eta penala.
 - Ur-ingurune naturaletako kontserbazioarekin erlazionatutako legeak eta araudiak.
 - Ur-ingurune naturaletako irisgarritasunarekin erlazionatutako legeak eta araudiak.
- Oztopo arkitektonikoak:
 - Estatuko eta erkidegoko legedia.
 - Oztopo fisiko motak.
- Aldaketa arkitektonikoak eta ur-inguruneen funtzionaltasuna.
 - Segurtasun-faktoreak eta -baliabideak: kontrolatzeko galdera-sortak. Jarduera-protokoloak eta larrialdi-planak.

- Eremu hauetako ingurune naturaletako sorospena, giza baliabideak eta materialak antolatzea:
 - Ibai-hondartzak.
 - Urtegiak eta aintzirak.
 - Ibaiak eta itsasadarrak.
 - Bandera urdineko hondartzak.

3. Ur-ingurune naturaletako istripuen zaintza eta prebentzioa.

- Ur-ingurune naturaletan istripuak prebenitzea.
 - Istripuen eta itotzeen kausak.
 - Ingurune naturaletako ur-programetako eta -jardueretako prebentzioa eta segurtasuna.
 - Istripuen eta itotzeen prebentzioa: hezkuntza eta informazioa. Uretako istripuak eraginkortasunez prebenitzeko giza baliabideak eta baliabide materialak.
- Ur-ingurune naturaletako zaintza.
 - Sorosleak zaintza egitea segurtasuneko lehen esku-hartze gisa.
 - Zaintzarako giza baliabideak eta baliabide materialak.
 - Zaintza-motak: estatikoa eta dinamikoa.
 - Zaintza-teknikak eta -estrategiak.
 - Zaintzaren faktore baldintzatzaileak.
 - Zaintzan eragiten duten alderdi psikologikoak.
 - Zaintzako akats ohikoenak.
 - Zaintza eraginkortasunez egiteko irizpideak.
- Lan-arriskuak.
 - Lan-arriskuen aurreikuspena.
 - Arrisku orokorreko egoerak.
 - Laneko arriskuen kausarik garrantzitsuenak.
 - Gaixotasun profesionalak. Soroslearen jardunean eragiten dituzten arriskuak.
- Jarduera-protokoloak eta larrialdi-planak.
 - Zaintzakoak.
 - Komunikaziokoak.
 - Leku-aldaketetakoak.
 - Ebakuaziokoak.

4. Komunikazioa arriskuen prebentzioari aplikatuta.

- Soroslearen trebetasun sozialak.
 - Entzute aktiboa. Entzuteko erroreak.
 - Enpatia.
 - Pentsatzen laguntzea.
 - Komunikazioaren helburuak.
 - ▫ Arauak betetzea.
 - ▫ Arrisku-egoerak ohartaraztea.
 - ▫ Gatazkak konpontzea.
- Komunikazio-teknikak.
 - Komunikazio-estiloen ereduak.
 - Mezuen transmisioan, ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzea.
 - Mezuen transmisioan, ikus-entzunezko hizkuntza eta ikono bidezkoa erabiltzea.
 - Komunikazioa arriskuak prebenitzeko egoerei aplikatuta.
 - Barne- eta kanpo-komunikazioko sistemak (irradi-transmisoreak, telefonoak, txilibituak eta abar).
- Psikologia eta soziologia aplikatuen oinarriak.
 - Nortasunaren oinarriak.
 - Motibazioa.
 - Jarrerak.
 - Nortasunaren garapeneko etapen ezaugarriak, parte-hartzearekin lotuta.
 - Behar bereziak dituzten pertsonen ezaugarriak.
 - Uretako sorospeneke estresa.
 - Antsietatea larrialdi-egoeretan.
 - Aktibazioaren kontrola: arnasketa eta erlaxazioa.
 - Uretako soroslearen autokonfiantza: hobetzeko estrategiak.
 - Arretaren kontrola: estiloak, estrategiak eta entrenatzeko teknikak.

5. Ingurumen-faktoreak. Soroslearen esku-hartzeak ur-ingurune naturaletan duen eragina.

- Ingurune-motak eta haien ezaugarriak.
 - Itsas hondartzak.
 - Ibai-hondartzak.
 - Urtegiak eta aintzirak.
 - Ibaiak, itsasadarrak eta beste batzuk.
 - Fauna eta flora arriskutsuak.
- Faktore atmosferikoak.
 - Zeruaren egoera.
 - Haizea, meteorak.
 - Tenperatura eta beste batzuk.
- Urari eragiten dioten faktoreak.
 - Mareak.
 - Olatuak.
 - Korronteak.
 - Lurzoruaren orografia.
 - Uraren tenperatura, uhertasuna eta ikuspena.
 - Kutsadura eta beste batzuk.
 - Bat-bateko sakonera-aldaketak.
- Giza faktoreak.
 - Erabiltzaile-kopurua eta olgeta- edo kirol-jarduerak egitea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ur-ingurune naturaletako sorospena